



**DONOSTIAKO HONDARTZETAKO IKS-REN
INGURUMEN DEKLARAZIOA
(EMAS III)
2014**



**Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián**

DONOSTIAKO HONDARTZETAKO **INGURUMEN KUDEAKETARAKO SISTEMA**

- 1. DATU OROKORRAK**
 - 1.1.** Aurkezpena
 - 1.2.** IKSren helmena
 - 1.3.** IKSren arduradunak
 - 1.4.** Politika
 - 1.5.** IKSren deskribapena
 - 1.6.** Aurrekontuak
 - 1.7.** 2014. urteko Ingurumen-alderdi esanguratsuak
- 2. INGURUMEN PORTAERA ETA PLANGINTZA ARLO BAKOITZEKO**
 - 2.1.** Hondakinak
 - 2.2.** Ura
 - 2.3.** Energia
 - 2.4.** Bainatzeko uren kalitatea
 - 2.5.** IKS-ren hobekuntzak
- 3. LEGEDIARI LOTURIKO BETEKIZUNAK ETA HONDARTZETAKO IKS-RI APLIKA DAITEZKEN BESTE BATZUK**
- 4. ERANSKINAK**
 - 4.1.** Ingurumen alderdien identifikazio eta ebaluaziorako metodoa
 - 4.2.** Adierazleak kalkulatzeko aspektu metodologikoak
 - 4.3.** Ingurumen-portaera ezagutzeko beste adierazle batzuk
 - 4.4.** 2015 urteko programa
- 5. ERAKUNDEAREKIN ERLAZIONATURIKO BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK**
- 6. INGURUMEN-EGIAZTATZAILEAREN IZENA ETA ZENBAKIA, ETA EGIAZTATZEAREN DATA**

1.- INGURUMEN KUDEAKETA SISTEMA: DATU OROKORRAK

1.1. AURKEZPENA

Donostiak 4 hondartza ditu: Zurriola, Kontxa eta Ondarreta, handienak eta ezagunenak, eta Santa Klara Irlan itsasbeheran sortzen den hondartza txikia.

Bakoitzak bere ezaugarriak ditu, adibidez, Ondarreta eta Kontxakoa adin guztietako erabiltzaileak dituzte, eta Zurriola berriz, bereziki gazteen eta itsas kirolen zaleek dute gustukoa nagusiki.

Bestalde, jende asko joaten denez, zerbitzu asko daude eta jarduera nahiz ekitaldi ugari antolatzen dira bertan.

Hondartzak babestu behar diren baliabide natural eta ekonomikoak direnez hondartzaren kutsadurari aurrea hartzeko eta egiten diren zerbitzu, jarduera eta erabiltzaileen ingurumenarekiko jarrera hobetzeko beharrezkoak diren baliabideak eskaintzen ditu.

Hondartzetako jarduerak eta zerbitzuak ingurumen-irizpideen arabera kudeatzeko helburuarekin, hondartzen kudeaketan aritzen diren udaleko zerbitzu teknikoak **2000. urtean** ingurumena kudeatzeko sistema ezartzen hasi ziren.

Ingurumena kudeatzeko sistema hau **ISO 14001** nazioarteko arauaren arabera ezarri zen, eta ondoren, **Europako Ekokudeaketa eta Ekoauditoriako araudira (EMAS)** egokitu zen, 2003. urtean hain zuzen.

Dokumentu hau Udal Zerbitzu Teknikoen Sailak egindako Ingurumenaren gaineko Deklarazioa da, Donostiako Hondartzen Kudeaketa Integralari dagokiona (Ondarreta, Kontxa, Zurriola eta Santa Klara Irlakoa).

Donostiako Udalak jendearen eskura jarri du Ingurumenaren gaineko Deklarazioa, web-orrian, hondartzetako kabinetan eta udal bulegoetan:

Web-gunea:

<http://www.donostia.org/ServiciosEspeciales/Playas.nsf/inicioc?ReadForm&idioma=eus>

Hiri Zerbitzuen Administrazio Bulegoa (Hondartzen Zerbitzua)

- Urdaneta Kalea 13, 20006 Donostia (Gipuzkoa)
- Tf: 943 481632 / Faxe: 943 481092
- helb. el.: ion_landa@donostia.eus
- Harremanetarako pertsona: Ion Landa

Ingurumen Kalitatearen eta Iraunkortasunaren Zerbitzua (Bioaniztasuna)

- Mandasko Dukearen Pasealekua 66, 20012 Donostia (Gipuzkoa)
- Tf: 943 483390 / Faxe: 943 470593
- email-a: ingurumena@donostia.eus
- Harremanetarako pertsona: Alaitz Iraola/Ana Juaristi/ Asun Yarzabal


1.2. IKS-ren HELMENA

Ingurumen Kudeaketarako Sistemaren barruan daude **hondartzak eta bere gainean dauden edota egiten diran jarduera guztiak**, hau da:

- hondartzetako garbiketa eta ur gaineko hondakinen erretiratzea (FCC enpresak egiten du, udalak kontratatuta),
- kabina kolektiboen zainketa (Galant-ek egiten du),
- salbamendu eta sorospen-zerbitzuak (Gurutze Gorria),
- Ondarretako eta Zurriolako igerilekuak
- toldoak eta aulkiak kudeatzea,
- instalazio guztien mantentze-lan orokorrak,
- Bainatzeko uren eta hondartza ingurumen eta sanitario ikuspuntutik egiten den kontrola,
- Tabernak:
 - Ondarretan: Ondarretako 2 tabernatxoak
 - Kontxan: aterpean dauden tabernak (Voladizo 1 eta 2)
 - Zurriolan: Tintineko taberna eta kioskoa.

Zerbitzu horietako batzuen ustiapena, esleipen-prozeduren bidez, enpresei esleitu zaie, baina udaletik zerbitzu horien jarraipena eta kontrola egiten da.

Ondoren, Ingurumen Kudeaketarako Sisteman barne hartutako eremuaren irismen fisikoa mugatzen duen argazki bat ikus daiteke.



1.3. HONDARTZAREN KUDEAKETAREN ARDURADUNAK


Donostiako Udala, Udal Zerbitzu Berezien bidez arduratzen da, besteak beste, hondartzetan udal izaerako eskumenak kudeatzeaz eta garatzeaz.

Bestalde, Ingurumen Osasunaren eta Iraunkortasunaren Zerbitzuaren barruan dagoen Bioaniztasuna eta Ingurumen Kalitatearen Ataletik eremu horretan dagoen egoera osasun eta ingurumen aldetik aztertu eta baloratzen du, eta baita IKS-ri dagokion dokumentazio eta prozedurak bultzatu eta sortzen ditu.

Hondartzetan egiten diren ekintzak, kasu gehienetan, lehiaketa sistemaren bitartez aukeratutako enpresek egiten dituzte. Horien artean, aipagarrienak:

- Hondakinen bilketa: FCC
- Kabinetako garbiketa eta harrera: Galant
- Sorosle eta Salbamendu Zerbitzua: Gurutze Gorria

IKSn parte hartzen duten udal Zerbitzuei dagokionez, honako organigrama dugu:



1.4. POLITIKA

HONDARTZETAKO INGURUMEN POLITIKA

Donostiako Udala udalerri mailako erakunde publikoa da eta, horregatik, agintzen du Donostiako hondartzetako ingurumen-portaera hobetu egingo duela, gizartearen garapen eramangarria bermatzeko asmoz. Donostiako udalak hondartzen kudeaketari dagokionez duen konpromisoa jarduketa-ildo hauetan gauzatzen da:

- Arauetan ezarritako ingurumen-eskakizunak eta bete beharreko gainerako eskakizunak ere une oro hondartzen gestioan beteko direla ziurtatzea.
- Helburuak ezartzea eta horiek lortzeko baliabideak jartzea, aldian-aldian aztertu eta eguneratuta, Udalaren ingurumen-portaera etengabe hobetzen dela ziurtatzeko eta kutsadura prebenitzeko.
- Udalak hondartzetan zuzenean nahiz esleipendunen bitartez egiten dituen ekintza guztietan ingurumenari loturiko alderdiak aintzakotzat hartzea, ingurumena hobetzeko eta Udalaren lanak ingurumenean duen eragina murrizteko garrantzi handia du eta.
- Baliabide naturalak aurrezten saiatzea, erabiltzaileak ura zentzuz erabiltzeak duen garrantziaz jabetu daitezen bultzatuz eta hondartzetan gaikako hondakinen bilketa sustatuz.
- Udal langileek eta hondartzeekin erlazionaturiko erakundearen politika, helburuak eta betebeharrak ezagutzeko eta ulertzeko moduko prestakuntza- eta komunikazio-planak antolatzea, erantzukizun-printzipioa ezarriz, hastapen horren arabera langile eta kontratista oro ingurumen-gaien arduradun da, bere lanaren osagai moduan.
- Hondartzen erabiltzaileekiko komunikazioa hobetzea kanpainen, web orriaren, postontzien eta egokitutako beste edozein bideren bitartez.

Ingurumen-politika hori Donostiako hondartzetako jardura eta zerbitzu guztietan aplikatuko da, edozein dela ere horien funtzionamendua (ohikoa, ezohikoa edo larrialdikoa).

1.5. IKS-AREN DESKRIBAPENA

Udalak hondartzako zerbitzuen funtzionamendu egokia bermatzeko tresnatzat hartzen du Ingurumen Kudeaketarako Sistema, eta baita legea betetzen dela bermatzeko ere, eta zerbitzu horiek dagokion arloan zehaztutako politikara egokitzen direla ziurtatzeko.


Ingurumen Kudeaketarako Sistemak honako hauek barne hartzen ditu: antolamendu-egitura, erantzukizunak, eskuliburuan oinarritutako agiriak (prozedurak, jarraibideak eta erregistroak), eta prozedura eta erregistro horien ezarpen eraginkorra.

Modu eskematikoan, Erakundeak ingurumenaren arloan duen jokabidearen etengabeko hobekuntza bermatzen duten sistemako elementuak deskribatu dira:

1.- PLANIFIKATU • Ingurumen-alderdiak eta horiekin lotutako ingurumen-inpaktuak identifikatu. • Erakundeak bete beharreko legezko baldintzak eta beste baldintzak batzuk identifikatu eta horien jarraipena egin, eta, egoki denean, horiek bideratzeko barne-irizpideak ezarri. • Ingurumenaren arloko helburuak eta xedeak ezarri, eta horiek lortzeko programak eratu. • Zereginaren adierazleak garatu eta erabili.	2.- EGIN • Kudeaketa-egiturak sortu, funtzioak eta erantzukizunak nahikoa aginpidez esleitu. • Baliabide egokiak eskaini. • Langileak prestatu, eta kontzientzia hartzen dutela eta dituzten eskumenez jabetzen direla bermatu. • Barneko nahiz kanpoko komunikaziorako prozesuak ezarri. • Dokumentazioa garatu eta zaindu. • Dokumentuen kontrola ezarri eta bideratu. • Eragiketen kontrola ezarri eta zaindu. • Larrialdiko egoeren aurreko prestasuna eta gaitasuna bermatu.
3.- ZUZENDARIEK BERRIKUSI • Zuzendaritzak Ingurumen Kudeaketarako Sistemaren berrikuspenak egin aldian-aldian. • Hobekuntza-arloak identifikatu.	4.- EGIAZTATU • Etengabeko <i>jarraipena eta neurketa</i> egin. • Legezko baldintzak eta aplika daitezkeen beste baldintza batzuk bete diren ebalatu. • Adostasun ezak identifikatu, eta ekintza zuzentzaileak nahiz prebentiboak egin. • Erregistroak kudeatu. • Aldian-aldian barne-ikuskaritzak egin.

Ingurumen Kudeaketarako Sistemaren dokumentuak:

- POLITIKA
- ESKULIBURUAK
- PROZEDURAK
- JARRAIBIDEAK
- ERREGISTROAK



1.6. AURREKONTUAK

Udalak honako aurrekontu hau darabil hondartzetarako:

	Hondartzetarako aurrekontua	Udal aurrekontua	%
2007. urtea	2.122.660,82 €	227.313.071,19 €	0,93
2008. urtea	2.165.000,80 €	309.978.714,70 €	0,70
2009. urtea	2.046.181,90 €	291.224.748,70 €	0,70
2010. urtea	1.917.670,40 €	258.257.327,82 €	0,74
2011. urtea	2.065.129,00 €	256.842.509,03 €	0,80
2012. urtea	2.031.796,09 €	266.383.423,55 €	0,76
2013. urtea	2.156.841,22 €	297.240.109,74 €	0,73
2014. urtea	2.191.028,98 €	291.242.790,84 €	0,75



1.7. 2014. URTEKO INGURUMEN-ALDERDI ESANGURATSUAK

Ingurumen kudeaketarako sistemak metodologikoki zehaztua du zein arlo izan behar ditugun kontuan (ur eta energia kontsumoak, sortutako hondakinak, gaika bildutako hondakinak ...), eta sistemak berak adierazten digu, arlo hauen urteroko emaitzen arabera, horietatik zein diren bereziki landu beharrekoak, hau da portaera txarra izan dutenak. Azken hauei "ingurumen alderdi esanguratsuak" deitzen zaie (informazio gehiago eranskinean)

Azkenik, 2014ko emaitzen azterketak ez du inongo "alderdi esanguratsurik" eman. Horretaz gain, gobernu aldaketa eta pertsonal falta dugunez, 2015. urteko programak bestetan baino helburu eta ekintza gutxiago ditu.



2.- INGURUMEN PORTAERA - ARLOKAKO PLANGINTZA

Jarraian ingurumen-alderdi bakoitzarekin lotutako informazioa azaltzen da:

- azken urteotan izandako bilakaera eta izan den ingurumen eragina.
- 2014ko programazioaren betetze maila eta guzti honen ondorioz lortu ziren emaitzak. Programa hori onartzerakoan, aurretik egindako azterketan alderdi esanguratsuen portaera okerra zuzendu edota hobetzeko asmoarekin hainbat helburu zehaztu ziren.

2.1. INGURUMEN-PORTAERA: HONDAKINAK

Urtero hondartzetan biltzen diren hondakinei buruzko informazioa biltzen da, bai itsasoak ekarritakoak, bai erabiltzaileek utzitakoak eta mantentze lanetan eta egiten diren ekintzetan sortutako hondakinak.


Horien barruan xehatutako datuak lortzen dira, arlo hauekin lotutakoak:

- Gaikako bilketan jasotako hondakinak: papera, beira eta ontziak
- Egurra: itsasoak ekarritakoa da, balorizatu egiten da (energia lortu).
- Hondakin arriskutsuak: instalazioen mantentze-lanetan sortzen direnak (erabilitako pinturen ontziak eta pintura hondarrak, ibilgailuen olioak, bateriak...) Hondakin hauek guztiak baimendutako kudeatzaileengana bideratzen dira.

- Lokatzak: kabinetako ur zikinak udal saneamendu sarera bidaltzeko dagoen ponpatokiak urtero garbitzen dira, eta lan horietan ateratzen dira lokatza hauek.
- Gaika biltzen ez diren hondakinak: gainontzekoak

2009.urtean **egurraren bilketa bereiztua** ezarri zen, balorizatzeko helburuarekin (energia lortzeko). Hondartzetan agertzen den egurra, itsasoak ekarritakoa izaten da, eta batzuetan kopuru handia iristen da hondartzetara. Bilketa honen helburua alde batetik energia errekupeatzea da eta, bestetik, zabortegira eramaten diren hondakinen kopurua murriztea.


Aurten datu hau kontuan hartu da grafikan ikusten den hondakin kopuru totala eta gaikako bilketaren kopuruan ere bai, udalak hondartzetara iristen diren hondakinen kudeaketa zuzena lortzeko egiten dituen ahaleginak erakutsiz; egurraren kudeaketa horrekin, zabortegira eramaten den hondakin kopurua murriztu egiten du. Hondartzetan jasotako egur kopurua oso aldakorra da, eguraldiaren arabera, eta horrek hondakinen kopuru totala aldaraz dezake modu nabarian.



2014an hondartzetan jasotako hondakin kopurua asko jaitsi da 2013kin konparatzen badugu; hala ere, aurreko urteekin alderatuz gero, batzuetan besteko mailan mantendu da. Kontuan artu behar da 2013ko portaera arraroa izan zela, eta, esan bezala, egur kopurua sartzeagatik, datu totalak aldakorak izan daitezke.

Duela urte batzuk, gure hondartzetan hondakinen gaikako bilketa ezarri zen. Horrela, hondartzan barrena zakarrontzi horiak ditugu ontziak eta plastikoak biltzeko, hondartza bakoitzan gaikako bilketa egiteko puntu bat dago (argazkia) eta kabinetan papera eta ontziak jasotzeko zakarrontziak daude. Horretaz gain, hondartzetako pasalekuetan "birziklatzeko irla" izeneakoak ditugu, gaikako bilketa egiteko (papera, ontziak, beira eta materia organikoa).

gaikako bilketa (erabiltzaileko) eta
hiri-hondakin totalak (erabiltzaileko), udan



Grafikan ikus daitekenez, 2013 urtearekin konparatuz, 2014an gaika jasotako hondakin kopurua erabiltzaileko igo bada ere, urte osokoa jaitsi da. Edozein kasuan, aldaketak hain txikiak izan dira, non esan dezakegu portaera berdina mantendu dela.

HONDAKINEN INGURUMEN ERAGINAK



Hiri-hondakinen sorkuntzatik datozen eraginak hurrengoak dira:

- Lehen gaien gehiegizko kontsumoa.
- Hondakinen kudeaketaren ondorioak: garraioa, lurzoru okupazioa, paisaia eragina, usainak, izurriteak, lixibatuaren eragina,...

HONDAKINEN ARLOAN 2014. URTERAKO AURREIKUSITAKOA

2014ko programan honako helburu, helmuga eta ekintzak ezarri ziren:

- 1. helburua: Hondartzetan jasotako hondakinen eragina murriztea.
 - 1.1 helmuga: Hondakinen gaikako bilketa tasa %1 igotzea 2013koarenetik, gai guztietan. Hau lortzeko, honakoak jartzekoak ziren: hondarrean edukiontzi berri erakargarriagoak, erabiltzaileen partaidetza suspertzeko, eta beste mini-iglu marroi bat, zati organikoa jasotzeko.
- Arazoak izan ziren eta Kontxako hondartzan ez ziren jarri zakarrontzi berri horiek.

2014an LORTURIKOA

2014rako aurreikusitako ekintza aurrera eraman da, baina %75 bakarrik. Hala ere, gaikako bilketa tasa igotzearen helburua ere bete da.

1.1 Helmuga: Hondakinen gaikako bilketa tasa %1ean igo			
2013	2014	bilakaera	Bete da
165,35 Tn	167,75 Tn	+%1,45	BAI

2015RAKO AURREIKUSITAKOA


- 1. helburua: Hondartzetan sortutako hondakin kopurua murriztea.
 - 1.1 helmuga: Hondakinen gaikako bilketa tasa %1 igotzea (kg /erabiltzaile) 2014koarenetik. Hau lortzeko Kontxako hondarrean falta zen edukiontzi berria jarriko zen.

2.2. INGURUMEN-PORTAERA: URA


Hemen adierazitako ur-kontsumoa honakoetan erabilitakoa da: kanpoko dutxetan, kabinetan, IKSren barruan dauden tabernetan eta instalazio eta aterpetako garbiketan.

Ondorengo grafikoan azken bost urteotako ur kontsumoa adierazten da, eta bertan ikusten da 2013an handitu ondoren, 2014an kontsumoa mantendu dela. Alde batetik, eguraldiarekin lotutako aldaketak izaten dira, eta, bestetik, 2011 eta 2012an dutxako puntu batzuk kendu ziren, eta horrekin ur kontsumoa murriztu zen; aldi berean, herritarren kexak sortu ziren, eta horregatik politikariek kendutako puntuak birjartzea erabaki zuten, berriro ur kontsumoa handituz.

Hala ere, eta sentsibilizazio kanpianei esker, udako pertsonako ur kontsumoa nabari jaitsi da, eta uda da kudeaketa eta kontsumoari begira urteko sasoi nagusia.



ur-kontsumoa udan (l/erabiltzaile)



Erabiltzaileen portaera:


Hondartzetan erabiltzen den uraren zati bat instalazioen garbiketan gastatzen da, baina bestean erabiltzaileek eragin zuzen-zuzena dute. Azken zati honetan eragin daiteke gehien neurri tekniko bidez (emariaren murriztaileak, denbora mugatuko pultsadoreak...) edota sentsibilizazio kanpainen bitartez.

2014an udako ur kontsumoak portaera ona izan du, bereziki kanpoko dutxetakoak, hurrengo grafikan ikusten den bezala.

Uraren kontsumoari begira, erabiltzaileen portaera hobetzeko honakoak kontuan hartu behar dira:

- ez jolastu edateko urarekin, horretarako egokiagoa da itsasoko ura
- kanpoko dutxak erabili bakarrik azken garbiketarako, eta freskatzeko, itsasokoa erabili
- kabinetan, dutxa ez luzatu behar baino gehiago.

Kanpoko dutxetako ur-kontsumoa udan (l/erabiltzaile)



UR KONTSUMOAREN INGURUMEN INPAKTUAK

Ur kontsumoak hondartzetan sortzen dituen inpaktuak hurrengoak dira:

- jatorritik (Añarbe urtegitik) garraiatzeko behar den energia-kontsumoa
- Potabilizazioan erabiltzen diren produktu kimikoen kontsumoa. Ez dugu ahaztu behar dutxetako eta iturrietako ura potabilizatua dagoela, eta baita kabinetako lurrak garbitzeko erabilitakoa, komunetakoa, eta jolasteko eta freskatzeko erabiltzen dena ere.

2014. URTERAKO AURREIKUSITAKOA URAREN ARLOAN

2014ko programan honako helburu, helmuga eta ekintzak ezarri ziren:

- 2. helburua: udako ur-kontsumoa murriztea
 - 2.1 helmuga: udako ur-kontsumoa murriztea %1ean 2013koarenetik. Hau lortzeko, Ingurumen eta Mantenu eta Zerbitzuetako zinegotziekin biltzea erabaki zen, dutxetako alkatxofa puntuak murrizteko, hau da, 4 izateatik 2ra pasatzeko helburuarekin.

2014.URTEAN LORTUTAKOA

2014ko programan jarritakoa ez da egin, eta horren orde, erabiltzaileenganako sentsibilizazio kanpaina bat egin zen. Horri esker, uraren inguruan ezarritako helmuga lortu da.

Helburua: udako ur-kontsumoa murriztea %1ean			
2013	2014	garapena	Bete da
41.247 l	39.197 l	- 4,97 %	BAI

2015rako PROGRAMATUTAKOA

Honako helburua sartu da:


- 2. Helburua: udako ur kontsumoa murriztea
 - 2.1. jomuga: udako ur kontsumoa (l / hondartzetako erabiltzaile) murriztea (2014koa baino <%1a). Horretarako sentsibilizazio kanpaina egingo da.

2.3. INGURUMEN-PORTAERA: ENERGIA


Hondartzetan erabiltzen den energia argindarra eta gasa dira eta honako zerbitzu hauetan kontsumitzen da: argiztapena, igogailuen eta aireztapen sistemen motorrak, sarrerako tornuak eta ordenadoreak, ur-sanitarioaren beroketa, etab.

Energia honen kontsumoa batetik instalazioen funtzionamenduan eta mantentzean ematen da, baina bestetik erabiltzaileen ardurapean dago. Hortaz bi arlo hauek landu beharko dira kontsumoa murriztu ahal izateko, bai tresna eraginkorrago eta kontrol errazagokoak, bai kabinetan egiten direnen artean (langileak eta erabiltzaileak) ohitura onak zabaltzen.

urteko energia kontsumoa Mwh (argindarra eta gasa)



urteko energia kontsumoa/urteko kabinetako erabiltzaile



Ikusten den bezala, energia kontsumo orokorra nabarmenki jaitsi da. Kalkulo honetan ezin izan dugu Zurriolako argindarra sartu, obrak eta matxurak izan direnez, urteko 2. zatiko irakurketak ez ditugulako. Horregatik, 2014ko kontsumo berdina sartu dugu hondartza horretako, benetako datuak ez eragozteko, hau da, hiru hondartzetako gas kontsumoak eta Kontxa eta Ondarretako argindarrakoak.

ENERGIA KONTSUMOAREN INGURUMEN INPAKTUAK

Energia elektrikoaren kontsumoaren eragina bereziki energia sortu ahal izateko erabiltzen diren sistemei egotzi diezaiekegu, hala nola zentral termiko, ziklo bikoitzeko edo zentral nuklearrei, baita energia honen garraioari ere, eta bereziki honakoak dira:

- Berriztagarriak ez diren lehengaien kontsumoa
- Airearen kutsadura
- Aldaketa klimatikoarengan eragin nabarmena
- Garraiorako behar diren lineak duten eragina
- Uren eta lur zoruaren kutsaduraren arriskua

2014. URTERAKO ENERGIAREN ARLOAN AURREIKUSITAKOA

2014ko programan honako helburua onartu zen:

- 2. Helburua: argindarraren kontsumoa murriztea
 - 2.1. jomuga: kabinetan urteko elektrizitate kontsumoa murriztea, 2013ko baina %1 txikiagoa (kw/ kabinetako orduko). Horretarako, Zurriola eta Ondarretako obrak egin ondoren, erreaktantzia elektronikoko fluoreszenteak jarri ziren, hauek kontsumo txikiagoa dutelako.

2014. URTEAN LORTUTAKOA

Helburua: kabinetan urteko elektrizitate-kontsumoa murriztea %1ean			
2013	2014	garapena	Bete da
99.225 kwh	87.109 kwh	- 12,2 %	BAI

2015 KO PROGRAMA

Kontuan hartuta kabinetako argindarraren portaera ona izan dela, ez da 2015eko programan aurreikusi inongo helbururik.

2.4. INGURUMEN INFORMAZIOA

IKSko ingurumen alderdia ez izan arren, hondartzetako erabiltzaileen portaera oso garrantzitsua denez, 2014ko programan euren portaera hobetzeko asmoarekin helburu barri bat ezarri zen. Gogoratu behar dugu ur eta energia kontsumoek, eta hondartzetan sortzen diren hondakinek , erabiltzaileen portaerarekin oso lotuta daudela; azken finean, erabiltzaileen portaerak kontsumoak eragina handia du, alde batetik kontsumoengan, eta, bestetik, zabortegira eramaten diren hondakin kopuruarengan eta baita gaika jasotzen diren honakinengan ere; hori dela eta, IKSren portaera orokorra hobetu dezakete.

Horregatik, honako helburua onartu zen:

- 4. Helburua: erabiltzaileek duten informazioa hobetu
 - 4.1. Helmuga: erabiltzaileek duten informazioa hobetu. Horrela, hondartzetako sarrera nagusietan 3 informazio kartela jarri ziren, bertan informazio eta aholkuak emanez.

2.5. INGURUMEN-PORTAERA: BAINATZEKO UREN KALITATEA

Bainatzeko uraren inguruko udalak daukan betebeharrak zuzen bakarrik honakoa da: kontrola eta analitikak egin eta herritarrei horren emaitzak eta informazioa eman, eta, behar izanez gero, behar diren neurriak hartu.

Ingurumen- eta osasun-kontrola (ikuskapena eta laginak hartzea) Ingurumen Kalitatearen eta Iraunkortasunaren Udal Zerbitzuko Ingurumen Kalitatearen teknikariek egiten dute urte osoan, eta astero horren berri hondartzetako web-ean eta kabinetako tabloietan ematen dute.

Halaber, udazkenean Estatu mailan hondartzen kalitatearen sisteman (NAYADE) sartzen dira udako datuak, eta informazio hori Osasun eta Gizarte Politikako Ministeriok daukan web-an eskuragarri dago.

Azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiak daukan hondartzen web-an ere Donostiako hondartzen emaitzak sartzen dira.

Gaia honetan indarrean dagoen legedia da *“Real Decreto 1341/2007, de 11 de octubre, sobre la gestión de la calidad de las aguas de baño”*, non baldintzak eta neurtu beharreko parametroak zehazten dira.

Honako hauek dira azken urteotako emaitzak:

	Punto	2010	2011	2012	2013	2014
Zurriola	Ulia	🌿	🌿	🌿	🌿	🌿
	Erdialdea	🌿	🌿	🌿	🌿	🌿
	Urumea	🌿	🌿	🌿	🌿	🌿
Kontxa	Nautikoa	🌿	🌿	🌿	🌿	🌿
	Erdialdea	🌿	🌿	🌿	🌿	🌿
	Loretopea	🌿	🌿	🌿	🌿	🌿
Ondarreta	Erdialdea	🌿	🌿	🌿	🌿	🌿
	Tenis	🌿	🌿	🌿	🌿	🌿
Santa Clara Uhartea	Erdialdea	🌿	🌿	🌿	🌿	🌿

- 🌿 uraren kalitatea ona da, legedian eskatutakoa betetzen du

2.6. INGURUMEN KUDEAKETA SISTEMAREN HOBEKUNTZAK

Urteko ingurumen programan jasotako helburu horiez gain, sistema hobetzeko hondartzekin lotutako beste jarduketa batzuk ere ezarri ziren, bereziki Ondarretan agertutako harriekin lotutako lanak. Azken urteotan harriak hondartzatik kendu dira, baina horrekin ez da araoa konpondu. Arazo hori konpontzeko helburuarekin, beti ere, hondartzaren dinamika ahalik eta gutxienentzat oztopatuz, hainbat ikerketa eta txostena egin izan dira, AZTI enpresarekin hain zuzen ere. Gainera, Kostaseko ministeritzarekin batera, hondartza eta harrien jarraipena zehatza eta sakona egiten ari da.

Bestalde, urte batzuk duela erakundearekin lotutako honako hobekuntza-ekintzak ere egiten dira:

- Kontratututako enpresetako langileei emandako **formakuntza-hitzaldiak** (FCC, Gurutze Gorria eta Galant). Horietan, IKSn, 14.001 ISO eta EMASen berri eman zaie, eta bide batez, beraien lanekin lotutako Instrukzioena ere bai.
- **Ingurumen Aholkulari Kontseiluan** aurkezpena: urteroko adierazpena kontseilu honetan aurkezten da IKSn garapena ezagutu dezaten eta, sortzen badira, bertan ordezkaturako gizarte agente guztien iradokizun edo galderak jasotzeko. Horrela sortu izan dira kudeatutako hainbat gai (bainatzeko uretan su artifizialek sor ditzaketen eragina, toldoek hartzen duten azalera...)
- **Tokiko Gobernu Batzordearen** urteroko adierazpenaren onarpena. Honekin goi mailako agintariak (Alkatea) IKSren alderdi garrantzitsuenak ezagutzen dituela egiaztatzen da.



3.- INGURUMENAREN ARLOAN APLIKATU BEHARREKO LEGEZKO BETEKIZUNEN BETETZE-MAILARI BURUZKO IRUZKINA

Sistemaren barnean, erakundeak jardueran aplikatu daitezkeen legezko betekizunak eta izan behar dituen ingurumen-baimenak ezagutzen dituela bermatzeko metodologia bat dago. Alde horretatik, erakundeak ondoko baimenak dituela azpimarratu behar da:

Ingurumen alderdia	Legezko betekizunak
Hondakinak	Hiri-hondakinen kudeaketa: • Birziklapenerako edo beste balorizazio-mota baterako bilketa selektiboaren sistemak ezartzea, edo dagoenean parte hartzea. • Bilketa selektiboaren ezarpenean eta ontzien erabileraren murrizketan partaidetza aktiboa sustatzea. Hondakin Arriskutsuak: • Hondakin Arriskutsuen Ekoizle Txikien Erregistroan izena emateko salbuespena • Sortutako hondakin arriskutsuak baimendutako kudeatzaileari ematea. Hondakin ez arriskutsuak: • Hondakin guztiak (sanitarioak, RCDak, Elektrikoak eta elektronikoak...) dagozkion baimendutako kudeatzaileari eman. Honez gain, modu egokian kudeatu behar dira: - jasotako Osasun-Hondakinak edo parekoak (xiringak). - instalazioetan sortutako Tresna Elektriko eta Elektronikoak - berritze- eta mantentze-lanetan sortutako Eraikuntza- eta Eraispenezko Hondakinak. <u>Arauak:</u> <i>22/2011 Legea uztailaren 29koa, hondakinei buruzkoa</i> <i>833/88 ED, 88ko uztailaren 30koa, eta 952/97 ED, 97ko ekainaren 20koa, (aurrekoa aldatzen duena), Hondakin Toxiko eta Arriskutsuei buruzkoa.</i> <i>49/2009 Dekretua, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.</i> <i>106/2008 Errege Dekretua, Pila eta akumuladoreen, eta horien hondakinen ingurumen kudeaketari buruzkoa.</i> <i>110/2015 Errege Dekretua, hondakin elektriko eta elektronikoen ingurukoa.</i> <i>21/2015 Dekretua, EAEko hondakin sanitarioen ingurukoa</i> <i>Hiri hondakinak jasotzeko Ordenantza</i>
Itsas-aldea	Itsaso nahiz Lehorreko Jabari Publikoa okupatzeko urteko baimena <u>Arauak:</u> <i>22/1988 Legea, uztailak 22koa, itsas ertzari buruzkoa, eta 876/2014 Errege Dekretua, Itsasertzaren Erreglamendu orokorra onartzen duena</i>

Urak	Hondakin-urak isurtzeko araztuta eta isurketa-baimena izan behar dute. Hondartzetan sortutakoak kabinetan ponpatu eta udal saneamendu sarera bidaltzen dira. Ponpa-fosan lokatza sortzen da eta urtean behin horiek jaso eta Añarbeko ur hondakinen araztegira eramaten dira. Bainatzeko urak: egindako azterketa eta kontrolen emaitzak eskudun erakundeari (Ministerioa) eta erabiltzaileei eskuratu behar zaizkie. Behar izanez gero, hau da, kalitate txarra eratzten den kasuetan, neurri egokiak hartu behar dira. <u>Arauak:</u> <i>1341/2007 Errege dekretua, urriak 11koa, bainurako uren kalitatearen kudeaketari buruzkoa.</i> <i>1/2006 legea, ekainak 23koa, urari buruzkoa.</i>
Hondartzetako erabilera	Donostiako Hondartzen erabilera eta aprobetxamenduaren udal Ordenantza
Legionela	Higieniko-osasun urteko mantentze-lanak egiten dira kabinetan. <u>Arauak:</u> 865/2003 ED, 2003ko uztailaren 18koa, legionelosiaren kontrolari buruzkoa.
Airea	Kabinetako ur bero sanitario galderen aldizkako berrikuste eta ikuskapenak. Hondartzetan lan egiten duten ibilgailuen ikuskapen teknikoa eguneratua.
Zarata	Kanpoko ekintzetan lan egiten duten makinak "CE" markaketa (hondartzaren garbiketa), erositako urtearen arabera, daukatela baieztatzen da. <u>Arauak:</u> <i>37/2003 legea, azaroaren 17koa, zaratari buruzkoa</i>



4.- ERANSKINAK:

4.1. NOLA EGITEN DUGU INGURUMEN-ALDERDIEN IDENTIFIKAZIOA ETA EBALUAZIOA

Donostiako hondartzetako Ingurumen Kudeaketarako Sistemaren arduradunek, aldian-aldian, hondartzan garatzen diren zerbitzuek eta jarduerak sortutako ingurumen-alderdiak identifikatzen dituzte; alderdi horiek identifikatu ondoren, zerbitzu horien ezaugarrien eta hondartzan duten kokapenaren arabera egokitutako irizpide batzuen arabera ebaluatzen dira.

Alderdien identifikazioa, batetik, hondartzetan garatzen diren jarduerak eta zerbitzuak, eta, bestetik, jarduera eta zerbitzu horietarako sor daitezkeen zuzeneko nahiz zeharkako alderdi guztiak kontuan izanik egingo da. Horien artean **Zuzeneko alderdiak**, udal zerbitzuek Hondartzen Kudeaketa Integralerako Sistemaren arduradun direnek zuzenean kontrolatzen dituztenak dira eta **Zeharkako Alderdiak** berriz, erabateko kontrola ez dutenak.

Dena den, hondartzen kasuan sailkapena ez dago argi. Adibidez, ur eta energia kontsumoetan, zati bat alderdi zuzena litzateke (instalazioen garbiketa eta mantentze-lanetan erabiltzen dena) eta bestea, eta hau zati handia da, zeharkakoa, erabiltzaile kopuruaren araberrakoa delako; edo baita hondakinen kasuan, eguraldi txarra egiten duenean, itsasoak ekarritako hondakinen kopurua handitu egiten da eta bestalde gaikako bilketa, neurri handi batean, erabiltzaileen portaeraren menpe dago.

Alderdiak esanguratsuak diren ala ez zehazteko, **Maila esanguratsu (ME)** bat ezarri da; eta honela neurtzen da:

Alderdi Zuzenak	Egoera normaletan	ME= Magnitude-mailak x Arriskugarritasuna
	Istripu edo larrialdietan	ME = Gertagarritasuna x Ondorioen larritasuna
Zeharkako Alderdiak		ME= Eragin-maila x Hobekuntzak egiteko aukera

Kasu guztietan ere, irizpide bakoitza 1-3 bitartean balioetsiko da, eta, beraz, Maila esanguratsua 1-9 bitartekoa izango da beti. Horrela sailkatuko dira:

	Maila esanguratsua	
>6	ALTUA	Alderdi esanguratsuak
2, 3, 4	TARTEKOA	Esanguratsuak ez diren alderdiak
1	BAXUA	

Alderdi esanguratsuen portaera hobetzeko eta sortzen duten eragina murrizteko asmoarekin, urteroko programan horiekin lotutako ekintzak proposatuko dira.

4.2. ADIERAZLEAK KALKULATZEKO ASPEKTU-METODOLOGIKOAK

Okupazio-bolumenaren, hau da, urte osoan hondartzetan erabiltzaile kopurua kalkulatzeko honako faktoreak kontuan hartzen dira: eguraldia (egun eguzkitsu, lainotu edo euritsuak), hondartzen azalera eta sasoia (uda edo altua, ertaina eta gainontzekoa). Horretarako urtero euri, eguzki-orduak eta lainoei buruzko informazioa AEMETen lortzen da.

Erabiltzaile kopuruak erabiltzaile bakoitza hondartzetan sartzen den aldiro adierazten du. Bestalde, energia konsumoaren kasuan kabinetako erabiltzaileak bakarrik hartzen dira kontuan, instalazio horietan gastatzen delako energia guztia. Kabinetan sarrera kontrolatzeko sistema dago, eta horregatik erabiltzaile-kopuru zehatza lortzen da. Egindako kalkulu guztien emaitza honako hau da:

		2010	2011	2012	2013	2014
hondartzetako erabiltzaile kopurua (uda)		3.072.925	3.113.325	2.982.025	3.380.975	3.358.250
hondartzetako erabiltzaile kopurua (urte osoa)		3.183.082	3.218.396	3.095.323	3.483.669	3.470.463
kabinetako erabiltzaile kopurua (urte osoa)		122.088	102.315	128.257	132.630	133.008



Kontxa eta Ondarretako kabinak urte osoan irekita daude; Zurriolakoak, berriz, bakarrik udan (ekainaren 1-irailako 30). Energia kontsumoen adierazleak zenbatzerakoan kabinetako orduak erabiltzen dira, eta hor aipatutako egutegi desberdintasuna kontuan hartzen da.

EMAS Arauan bioaniztasunarekin lotutako zehazten den adierazleak ez dira aztertu hondartza hauek hiriaren barruan daudelako eta presio handia jasaten dute; hori dela eta, hiriak (eraikinak, kaia, pasealekua...) hondartza inguruko bioaniztasunean eragina handia du, are gehiago, hondartzetan egiten den kudeaketarena baino nabarmenagoa.

4.3. IKSn PORTAERA EZAGUTZEKO BESTE ADIERAZLE BATZUK

ERAKUNDEAREN LANGILE-KOPURUA

Langile-kopurua oso aldakorra da urteko sasoiaren arabera. Horrela, udan (ekainaren 1-irailako 30) neguan baino askoz pertsona gehiago izaten dira lanean. Bataz beste **45 langile** kontuan hartuko ditugu.

Hondartzetan sortutako **hondakin arriskutsuak** dira: kabina eta aterpeen mantentzen lanetan gelditutako pintura arrastoak eta pintura poteak, eta hondartzetan ibiltzen diren ibilgailuen mantentzean sortutakoak (hondakinak jasotzerakoan, hauek zabortegira garraiatzerakoan...)

HONDAKINAK:

	2010	2011	2012	2013	2014
urteko hondakin totalak (tn)*	494,7	651,2	394,7	820,6	541,9
gaika bildutako hondakinak (tn) UDA	82,6	133,7	96,4	165,4	167,8
arrantean bildutako hondakinak (tn) UDA	295,86	304,34	192,92	248,92	230,64
ontzien hondakinak (tn)	44,00	33,25	46,48	47,18	23,49
paper eta kartoai hondakinak (tn)	0,28	0,15	0,23	0,26	0,18
beira hondakinak (tn)	0,17	0,12	0,36	0,49	0,32
urteko egurra (tn)	38,12	100,16	49,29	117,42	143,76
lokatzak	22,00	26,74	20,52	12,64	12,06
hondakin totalak (kg/erabiltzaile)	0,16	0,20	0,13	0,24	0,16
udan gaika bildutako hondakinak (kg) / udako erabiltzaile	0,0269	0,0429	0,0323	0,0489	0,0500
hondakin totalak (tn) /langile	10,99	14,47	8,77	18,24	12,04
hondakin arriskutsuak (tn)	0,17	0,39	0,35	0,38	0,36
hondakin arriskutsuak (tn)/langile	0,0038	0,0087	0,0077	0,0084	0,0080

*taulan urteko hondakin totalak (tn) agertzen denean, egurrak sartu dira, hondartzetako IKSren portaera adierazten dutelako; izan ere, jasotako hondakinen kopurua neurri handi batean ez da kudeatzaileen esku (itsasoak ekarritakoa), baina bai horiekin egindako kudeaketa, eta horregatik egurra bereiztea eta balorazio energetikoa egitea, zabortegira eraman beharrean, egokitzen jotzen da eta merezi du adieraztea.

Hondartzetan sortzen diren **hondakin arriskutsuak** dira gehien bat mantenuan sortzen direnak, alde batetik kabinen eta boladizoetan erabiltzen diren pinturen ontziak eta, bestetik, hondartzetan ibiltzen diren ibilgailuenak (hondartzetako garbiketan, mugitzeko...)

Itsasbelarrak hondartza eta itsasoetako dinamikan sortutako elementu naturalak direnez, ez ditugu hondakinen artean sartu. Dena den, eta erabiltzaileen kexa direla eta, behin baino gehiagotan jaso izan dira.

Bestalde, kabinetako ur zikinak saneamendu sarea baino maila baxuagoan daudenez, sarean sartu baino lehen fosa batean egoten dira, handik ponpatu arte. Hori dela eta, fosan lokatzak sortzen dira, eta urtean behin ateratzen dira, ur zikinek araztegia eramateko.

UR-KONTSUMOA

	2010	2011	2012	2013	2014
urteko ur kontsumoa (m ³)	49.660	47.554	45.650	50.714	50.825
urteko ur kontsumoa /langile (m ³)	1103,6	1056,8	1014,4	1127,0	1129,4
urteko ur kontsumoa (l)/hondartzetako erabiltzaile	15,60	14,78	14,75	14,56	14,65

ENERGIA ELEKTRIKOA

	2010	2011	2012	2013	2014
urteko argindarraren kontsumoa (MWh)	119,47	104,31	94,97	99,23	100,00
urteko argindarraren kontsumoa(MWh)/langile	2,7	2,3	2,1	2,2	2,2

GASA

	2010	2011	2012	2013	2014
urteko gas kontsumoa (MWh)	356.387	270.904	359.950	358.796	317.631
urteko ur kontsumoa(MWh)/langile	7920	6020	7999	7973	7058

ATMOSFERARA ISURITAKO CO₂

Negutegi efektua sortzen duten gasen (NEG) isurketa kalkulatzen bakarrik hondartzetako kabinetan kontsumitutako gasa kontuan hartu da (kontsumoa m³ x gutxieneko botere kalorifikoa TJ/N m³ x itzuli faktorea tCO₂ /TJ)

	2010	2011	2012	2013	2014
urteko NEG emisioa (CO ₂ e tn)	67	51	68	68	59
urteko NEG emisioa (CO ₂ e tn)/langile	1,50	1,14	1,51	1,51	1,32
urteko NEG emisioa(CO ₂ e kg)/kabinetako erabiltzaile	0,55	0,50	0,53	0,51	0,45

4.4. 2015 URTEKO PROGRAMA

Xedeak/Ekintzak	Arduraduna	Baliabidea	Adierazlea
1. HELBURUA: hondartzetan sortutako hondakinen eragina murriztea			
1.1. HELMUGA	Gaika bildutako hondakinen % handitzea, frakzio guztietan %1a		
1.1.1. ekintza: erabiltzaileen parte hartzea handitzeko asmoarekin, zakarrontzi erakargarriagoak jarri Kontxan.	I.Landa-FCC	7.500€	2014 + %1
2. HELBURUA: ur kontsumoa murriztea			
2.1. HELMUGA	Kanpoko dutzetako ur kontsumoa udan murriztea (2013 baino <%1) (l/erabiltzaileko)		
2.1.1. ekintza: hondartzetako erabiltzaileei zuzendutako kanpaina egin.	A.Yarzabal	2.000€	2014 – %1

5.- ERAKUNDEAK INGURUMENAREN ARLOAN DUEN JOKABIDEARI BURUZKO BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK

Erakunde antolatzaileak ingurumenarekin lotuta dauden beste ekintzak ere lantzen ditu, besteak beste:

- **21. TOKIKO AGENDA**

1998an Donostiako Udalak Aalborg gutuna sinatu zuen, eta horrekin batera 21. Agendaren ezartze prozesua hasi zen. Egun II Ekintza Plana indarrean dago, eta UDALSAREAn (Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea) parte hartzen da.

- **ALDAKETA KLIMATIKOAREN AURKAKO PLANA**

2008an Klimaren Aldeko Alkateen Ituna sinatu zen eta Energia Jasangarriaren Ekintza Plana egin ondoren, 2014an Mayors Adapt edo "The Covenant of Mayors Initiative on Adaptation to Climate Change" sinatu zen.

- **DONOSTIA CO2: FAMILIAK KLIMAREN ALDE**

Proiektu hau herritarrei zuzenduta dago eta helburua etxeetako energia kontsumoa murriztea da. Horretarako, informazio baliotsua eta kontsumo-neurgailua ematen zaizkie, hasiera eta bukaerako (emandako aholkuan martxan jarri ondoren) kontsumoak konpara ditzaten.

- **UDAL ZERBITZUETAKO INGURUMEN ZIURTAGIRIAK**

Udal Zerbitzuetan poliki-poliki IKS ezberdinak ezartzen ari dira, kasu bakoitzean ziurtagiri edo arau egokiena aukeratu ondoren. Horrela, egun honako hauek dira:

- Klima Aldaketa eta 21. Agenda eta Cristina Enea Fundazioa: Ekoscana
- Uliako Udal Aterpea: Ecolabela.

- **EROSKETA PUBLIKO BERDEA**

2006an erakundeak egiten dituen erosketen eta kontratatzioen pliegoetan ingurumen irizpideak sartzen hasi zen, eta batz bestez, urtero 8 pliegoak landu dira.

2013an Udal Plenoak horren inguruko instrukzioa onartu zuen, hau da, udal kontratazio guztietan ingurumen, sozial, merkataritza justua eta genero berdintasunarekin lotutako irizpideak txertatzeko.



6.- INGURUMEN-EGIAZTAPENA

Ingurumenarekiko duen erantzukizunarekin konplitzeko asmoz, erakundeak bere gain hartzen du gizartearekin eta bere zereginetan interesatuta dauden taldeekin elkarriketatzeko ardura. Horrela, herritarren galderak eta iradokizunak jaso, baloratu eta erantzuteaz gain, ingurumen deklarazioa Ingurumeneko Aholkulari Kontseilura bidaltzen da; kontseilu horretan hiriko elkate desberdinak ordezkaturik daude. Horiek, deklarazioaren inguruako galderak edota iradokizunak ere egiteko aukera dute eta kontuan hartzen dira, onartutzat hartu baino lehen.

Halaber, Zuzendaritzak interesatu guztiei helaraziko die deklarazio hau. Udalaren web orriaren bitartez, eta jendaurrean ipiniko du udaletxeko lokaletan (Zerbitzu Berezien eta Ingurumen bulegoetan, eta hondartzetako kabinetan).

Ingurumen Deklarazioa urtero egingo da. Beraz, hurrengoa 2015ekoa izango da eta 2016ko udan argitaratuko da.

Deklarazioaren egilea,

Asunción Yarzabal Etxebeste
Ingurumen Kudeaketarako Sistemaren arduraduna

Onarpena,

Ana Juaristi Arrieta
IKSren zuzendaria
Ingurumen Kalitatearen eta
Iraunkortasunaren Zerbitziburua

Ion Landa Ubetagoiena
IKSren zuzendaria
Hiri Zerbitzuen Administrazio
Bulegoburua

Egiaztatzea LRQA Ltd. Izan da, ES-V-0006 zenbakia duena.

INGURUMEN DEKLARAZIO HAU BALIOZTATUTZAT HARTZEKO, EGIAZTAPEN AGIRIAREKIN BATERA JOAN BEHAR DU.